



# NORK EGINGO DU UDAKO ARGAZKI EDERRENA?

X. HITZA Argazki Lehiaketa antolatu du eskualdeko egunkariak; sari potoloak daude zain irabazleentzat >4-5

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea**  
**2009-07-26**

VII URTEA 1.764. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Oinkari dantza taldekoek soka dantza egin zuten atzo. R. CALVO

## KROSA ETA EUSKAL JAI A SANTIO EGUNEKO PROTAGONISTAK

**VILLABONA** Ramon Otaegik eta Izaskun Zubeldiak irabazi zuten krosa; emakumezkoen V. txirringularitza sari nagusia izango da gaurkoan 6



Frontenis txapelketaren finaleko une bat. A. IMAZ

## Atekabeltz Gaztetxearen laugarren urteurrena ospatzeko jai polita

**LEITZA** Herri bazkaria, musika eta frontenis txapelketaren finala izan ziren, besteak beste 7

## Juan Mari Jauregi omenduko dute hilaren 29an

**TOLOSA** ETAK hil zuen 2000. urtean Gipuzkoako gobernadore zibil eta Tolosako zinegotzi ohia 3



Villabonako Santio Jaiak 09

**Jaiak bizi eta gozatu!!  
Ez daudenak gogoan hartu!**



## G Gutunak

### Festetan ere dena festa izan ez dela gogoratzu

Bost egun eta gero, akabo Alegiako jaiak. Urtero bezala, biharamuna oraindik guztiz pasatu gabe iritsi zaigu balantzea egiteko unea. Datorren astean elkartuko gara erre-paso zehatza egiteko, baina festen atzean lana ere erruz izan denez, hauxe dugu esateko:

Eskerrak eman nahi dizkizuegu asteazkenetik igandea bitarte antolatutako ekintzetan parte hartu duzuen herritarrei, bereziki programa osatzen lagundu eta ekitaldiak aurrera ateratzeko posible egin duzuenoi: Guraso Elkarteari, ume jolasetan eta umeen bazkarian izandako parte-hartzeagatik. Herri kiroltako eta arantza lehiaketako arduradunei, dultzainero eta trikitilariari, lehengo eta oraingo txistulariari (zuen kalejira usadio bihurtzen ari da eta eutsi horri), jubilatuei... festetako hitzordua urteroz zuen agendetan apuntatzen jarraitzeagatik. Abesbatzari ere bai, zuena ere egitarautik kanpo utzi ezin den hitzordua baita. Datorren urtean izango duzue zer ospatu eta hasi prestatzen...

Dantza taldeari beste horrenbeste, herritarren gozamerako eskainitako emanaldi bikainarengatik. Urteak urtera indartsuago ari zarete, eta aurten gainera, hankak astintzeko adin mugarik ez dela erakutsi duzue. Segi horrela!

Astindu beharrean izan ginen udalaxe goiak eta beheak ere herri afariko garaian, eguraldia trakestu

zenezan. Aurten inoiz baino baldintza zailagotan zerbitzatzen aritu zaretenoi mila esker egindako lanagatik. Antolatzekeo gaitasun aparta duzue, bai horixe.

Aurreneko aldiz patata tortilla txapelketan parte hartu duzuenoi eta epaimahaikideoi, berriz, esan giro aparta sortu zenutela. Ez gurenuen argitu tortilla onaren sekretua non dagoen, baina uste dugu umorea eta patxada izan zirela gako nagusiak.

Zazpi Astoren Gainean taldeko lagunak, zuek antolatutako saioari esker aurten Kultur Etxeko areto nagusia bete da. Han esan bezala, bertsozaletasunak elkartu gaitzala berriro.

Eta inor ahaztu nahi ez dugunez, eskerrak baita goizetik gauera bitarte lanean aritu zareten langilei, bereziki Monicari eta Lukasi. Festak hankamotz geratuko lirateke zuek gabe.

Orokorrean pozik gaude aurretengoak eman duenarekin, batik bat dena ezustekorik gabe, lasaitasunez eta giro onean joan delako. Ekitaldi guztiak ez dira denen gustukoak izan, noski. Ahalik eta herritar gehienengana iritsi nahi izan dugu, eta hori denetik biltzen duen egitarau zabal batekin bakarrik lor daiteke. Hobetu beharrekoak ondo apuntatu eta datorren urterako gogoan izango ditugu. Urtebete dugu 2010eko festak antolatzeko. 365 egun dituzue, beraz, ideiak, proposamen eta kritikak.

**Maidar Jauregi.** Alegiko Kultur zinegotzia.

## Z Zurea da hitza info



### Jauregi podioan Gipuzkoakoan

**TOLOSA** • Unai Jauregi bigarren postuan sartu zen Ordiziako helmugan, pasa den larunbatean lehiatu zen Gipuzkoako kadeteen Txapelketan. Asier Unanue Aramarraren atzetik sartu zen, hain zuzen ere, Unai

Jauregi tolosarra. Hirugarren postua Eneko Lizarralderentzat izan zen. Azken txirrindulari honek beste sari bat ere jaso zuen herriko lehendabizikoa bera izan baitzen. ASUN

## L Laburrak

### Hurrengo denboraldian parte hartzeko deialdia

**ALEGIA** • Intxurre futbol taldeko ordezkariak deialdia egin dute 2009-2010 denboraldirako. Hala, lurraldekako mailan jokatu nahi duten mutilek bihar, astelehena, Alegiako futbol zelaian agertu beharko dute, 19:00etan. Bestalde, Intxurre elkartekoek eskerrak eman nahi dizkiete Alegiako festetan Guria tabernan lagundu zuten guztiei, bai lanean, bai eta kontsumitzen ere. Azkenik Intxurre KKEK egiten duen zozketaren zenbaki saritua 1.503a izan dela azaldu dute ordezkariak. Zenbaki hau Alegiako Kafe Letamendian saldu zuten.

### Iragarki laburrak

#### LANA

■ **Tabernaria.** Neska euskalduna behar da Ikaztegiatiko ostatuan lan egiteko. Interesa dutenek 635 20 35 62 telefono zenbakira dei dezakete.

### Euskal Jaia antolatzeko bilera egingo dute etzi

**ANOETA** • Euskal Jaia antolatzeko hurrengo bilera etzi, asteartean izango da. Udaltxean, 19:00etan egingo dute, eta herritar guztiak gonbidatzen dituzte bertan parte hartzera.

### 'Ice age 3' eta 'Vacaciones en Ferragosto' Leidorren

**TOLOSA** • *Ice age 3* filma izango da gaur ikusgai Leidor aretoan, 17:00etan. 19:30ean, bestalde, *Vacaciones en Ferragosto* emango dute. Bihar, ikuslearen eguna, *Vacaciones en Ferragosto* izango da ikusgai, 20:30ean.

**@ Oporraldia.** Udako oporraldia dela eta HITZAko webgunea ere geldirik izango da. Uztailearen 27tik Irailaren 1era bitarte ez da edizio jarraiturik. Irailaren 1ean bertan jarriko da berriz ere martxan, azken orduko, irudi, bideo, blog, eztabaidak, inkestak, ... nabigatzaileen eskura jartzeko. Ondo pasa!

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## » Iritzia

**Mikelo Zabala**  
Tolosako Amnistiaren Aldeko Mugimendua izenean

Idatzi honen zergatia, Lakuako gobernua azken aldi honetan darabilen jardun errepresiboa salatzea da. Euskal preso politikoaren argazkiak Euskal Herri osoan, baina, batez ere, gure eskualdean hainbat txokotatik kentzea tamalgarrria deritzogu.

Kutsu erabat politikoa duen neurri honen aplikazioaren helburua elkartasuna kriminalizatzea da eta, bide batez, gaur egun indarrean dagoen espetxe politikak kriminalaren salaketa ikuste-zin bilakatzea. Argazkiak kenduz, espetxe politika horren inpunitatea bermatzen dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak espetxean mantentzeko, bizi osorako zigorra aplikatzeko, dispersioarekin jarraitzeko edo torturatzeko inpunitatea.

Izan ere, herri honetako inpunitate eremuak espetxe eta komisaldetaren daude. Espetxeetako bizi baldintza gogorrek zenbait euskal preso politikoaren heriotza ekarri dute azken urte hauetan. Isolamendua, barkatzea, jipoiak, umilazioak, trasladoak, komuni-

kazioen bortxaketa etengabea eta hainbat eskubideen urraketa eguneroko ogia dira euskal preso politikoentzat. Urraketa horien guztien arduradunek inpunitate osoa dute presoaren eskubideak behin eta berriz zapaltzeko. Gogoratu nahi diegu beraien legeen arabera sakabanaketa bera dela ilegala, eta ez euskal preso politikoaren eskubideak aldarrikatzeko.

Zentzu honetan argi esan nahi dugu, sakabanaketak eta espetxe politika anker honek irauten duen bitartean Euskal Herriko eta eskualde honetako hormak injustiziak salatzen erabiltzen jarraituko dugula.

Honen guztiaren aurrean, euskal gizarteak duintasunez eta irmotasunez erantzutea ezinbestekoa dela deritzogu. Duintasuna eta elkartasuna beraien harropuzkeria eta bortizkeriaren aurrean. Euskal preso politikoaren argazkiak, eta baita oroimen plakak ere, herri honetan duten sostenguan, maitasunaren eta elkartasunaren adierazleak dira, sinbolo bat dira eta soilik desagertuko dira Euskal Herriko kaleetatik, gatatzakaren konponbidea iristen den egunean. Ez lehenago, nahiz eta Lopez, Ares edo Rubalcaba-

ren modukoek saiakera antzuak egin.

Euskal preso politikoaren argazkiak kalean egon behar dute. Gure herriko errealitatearen parte izan behar dute. Sufrimendua eta heriotza besterik ekarri ez duen espetxe politika kriminalaren inpunitatea salatzen ezinbesteko ikurra baitira.

Euskal jendarteak pulsu erreprehibo baten aurrean gaudela jakin behar du. Barne Sailaren eta bere bozgorailu mediakoien helburua izua zabaltzea besterik ez da. Propaganda eta bortizkeriaren bitartez, elkartasuna Euskal Herriko etxe, kale, plaza, taberna, jai edo txosnetatik desagertzeko.

Honen guztiaren aurrean, euskal irrimo goa izan, gero eta zailago izango dute euren helburuak aurrera eramateko. Inpunitate osoa dute bortizkeriarekin jokatzen. Badakitelako soilik bortizkeriaren bitartez estali dezakete la deserosoa egiten zaien errealitate bat: 740 euskal preso politikoei aplikatzen zaien espetxe politika kriminal horren salaketa. Beraz, horri aurre egiteko, 740 euskal preso politikoaren argazkiak Euskal Herria bete behar dute uda honetan. Ez baititugu gure presoak inoiz estaliko.

## A Argazki zaharrak



## Santio jaietako aspaldiko irudiak

**VILLABONA** • Ezkerrean, goian, 1943. urteko Santio jaietan, haur eta gazteak Kale Berrian gora saltoka datozela ikus dezakegu. Beheko irudian, berriz, Villabonako Juantxo Barbe eta Ramon Ugarte bikoteak eta Aiako Chiquitok egin zuten korrika apustua ikus daiteke. Billabonatarrek irabazi zuten. Eskuinean, bestalde, zinta lasterketa geri da. Jaietako ekitaldi nagusietako bat izaten zen hau, eta herriko gazte gehienek hartzen zuten parte. Ramon Ugarte ageri da bizikletaren gainean zinta harrapatzen.

'AMASA-VILLABONAKO ERRETRATU ZAHARRAK'

## S Soka motzean

«Lotura handiak sortzen dira saharar eta bertakoen artean»

**RACHID SALEM ABDORRAHMAN**

Begiralea

**INIGO TERRADILLOS**

15 gazte saharar etorri dira aurtien eskualdera *Uda bakean* ekimenaren baitan udagurean igarotzera. Pasa den urtean bezala, Rachid Salem Abdorrahman (Tantan, Mendebaldeko Sahara, 1987) ari da gaztetxo hauen begirale bezala lanean.

**Begirale bezala errepikatu duzu, gustatu zizaitzuen seinale.**

Bai, oso gustura aritu nintzen, eta proposatu zidatenean pozik egingo nuela esan nien.

**Gaztetxo hauentzat zein mailatan dela onuragarria uda gurean igarotzea esango zenuke?**

Batetik osasunarena dago, hango beroa ekiditeaz gain, mediku azterketak egiten baitizkiete. Bestetik, gazte hauek beste kulturak ezagutzeko aukera dute, eta bertakoek nahiz inguruko herritarrek saharar kultura eta gatazkaren berri izaten dute. Oso garrantzitsua da hori. Lotura oso handiak sortzen dira bertako eta saharar familien artean.

**Nolatan etorri zinen Tolosara?**

Duela 2 urte etorri nintzen saharar lurralde okupatuetatik. Tolosan familia nuen, eta horregatik aukeratu nuen.

**Zer etortzen zaizu burura Sahara aipatzean?**

Gauza asko. Gure lurra, familia, lagunak...

**Zer azpimarratuko zenuke euskaldunez?**

Euren solidaritatea.



IT

## Juan Mari Jauregiri omenaldia egingo diote hilaren 29an Tolosan

**Politika** » Gipuzkoako gobernadore zibil eta Tolosako zinegotzi ohia ETAK hil zuen 2000ko uztailean 29an.

**ERREDAKZIOA**

Juan Mari Jauregi omenaldia hilaren 29an, asteazkenean, Tolosako Aranburu Jauregiaren ondoan aurkitzen den Biktimen Gunean.

Gipuzko gobernadore zibil eta Tolosako Udala zinegotzi ohiaren omenaldia 12:30ean hasiko da eta ondoren lore eskaintza egingo dionte.

Bertan, besteak beste, Maixabel Lasa, Jauregiaren alarguna eta Eusko Jaurlaritzaren Biktimen Arretarako Bulegoko zuzendaria; Oscar Renedo, Tolosako PSE-EEren udal zinegotzia eta Jose Manuel Rodriguez, Espainiako Gobernu-

ko Terrorismoaren Biktimen Babeserako zuzendari nagusia egongo dira.

Omenaldia Juan Mari Jauregiaren Tolosako kide sozialistek antolatutako jakinarazi du PSE-EE alderdiak plazaratu duen deialdiak.

**Bederatzigarren urteurrena**

Juan Mari Jauregi ETAK hil zuen duela bederatzigarren urte Tolosako Fronton kafetegian, 2000ko uztailean 29an, hain zuzen ere.

Jauregi Legorretan jaiotzen zen. 1973tik 1989ra PCEn militatu zuen. Ondoren, talde sozialistara pasa zen 1989an. Handik bi urtera zinegotzi kargua hartu zuen Tolosako udaletxean. Ondoren, 1994. urtean, Juan Alberto Belloch sailburuak Gipuzkoako gobernadore zibil karguan jarri zuen Juan Mari Jauregi, Jose Mari Gurrutxaga ordezkatu. Kargua 1996an utzi zuen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

# HAMARGARRENAREN BILA



Lehen eta bigarren edizioko irabazleak, hurrenez hurren: goian, Josu Gonzalezena eta behean Txema Zabalerena.

**X. HITZA Argazki Lehiaketa** » Hamargarren aldiz irakurleen argazki onenaren bila arriko da uda ostean HITZA.

**EREDAKZIOA**

Atzera begira jarri eta zaila izango litzateke orain arteko argazki lehiaketan parte hartu duzuen gurtion artean, argazkirik polikiak hautatzea. Horregatik, edizio bakoitzean irabazle suertatu zen argazkietan nabaritzenko hildu-ondasunak inbidu zaigu egokiena, edizio bakoitzean zuen irizidie-rena izan zen argazkietan.

Akzio harkidularian irabazleak desberdinak izan zitiren, paisaiak, erretratuak, etxean ateratakoak, atzerrikoak... Guztiak kalitatezko-

ak eta irakurleak trauinditu dituen xarria berezi hutsik.

Uda honetan ere jada ohitura denari jarraituko dio HITZAk eta X. Hitza Argazki Lehiaketa antolatuko da. Zuen parte-hartzea ezinbesteko da lehiaketan eta HITZA eskura jarriko dizkizue sari interesgarriak. Izan ere, noiz ez ditugu gaur egunopon egunetan argazkiak ateratzen? Ia gehienok hartzen dugu kamara alboan gure ingururaren gusa edota kanporatu gossonean, une horietan betirik gordeta gera daitezken. Bada, zer hobekik, argazki horiek egunetarian argiaratu, eta gainera, saridun izatea egokitzera baino?

Beraz, animatu, edonork har baitaizkio parte behan aljontzen diren baldintzak betez. Sariak ere ez dira nolana hikiokak. Zorte on guzti!

**HAINBAT DATU**

**Epeak**

- Argazkiak irailaren lekei aurrera bidaltzeko, irailaren 17a izango da azken eguna (azken hau barne).
- Irailaren 20an TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN epaimahaik aukeraturako zortzi argazki finalistik argitaratuko dira.
- Irailaren 27an egunkariaren irakurleak aukeraturako argazki irabazlea argitaratuko da. Harpidedunak bakarrik bozkatu ahaliko dute. Bozkatzeko epea irailaren 25ean bukatzen da.
- Bozkatzeko, telefonoz (943 655609) edo mailaz (tolosaldeon@tolosaldeko hitza.info) egin daiteke. Harpidedun kodea zehaztu behariko da, bestela, bozkek ez du balio irizango.

**Sariak**

- Sari polikiak izango dira X. Hitza Argazki Lehiaketa irabazten duten parte-hartzaileentzat: asteburu baterako egonaldiak, afari edota bazkariak, sasi bereziak... Horetaz gain, parte-hartzaile eta boto emaliek guztien artean HITZAko produktuek ere zozketatuko ditugu.

**Baldintzak**

- Aukeraturako argazkiak Aste Santuetako oporaldietan behar dute izan.
- Paperean, diapositiban eta formatu digitalak onartzen dira.
- Bidaltzeko aukerak: posta elektronikoz (tolosaldeon@tolosaldeko hitza.info) edota posta arruntz egin daitezke (Araba eta bidea 5, behean, 20.400 Tolosa edota Herriko plaza 1, Leizta).
- Argazki digitalak, gutxienez, esagarrri hauek izan behar dituzte: 20 zentimetroko zabalera eta 300eko berresmena.
- Jari behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Honez gain, argazkia non eta noiz egin den, eta zer ikusten den adierazi behariko da.
- Jasotako argazkiak artibioan gordetako ditugu, eta HITZAk behar dituzenean argitaratu ahaliko ditu.
- Jasozten diren argazki guztiak sartuko dira lehiaketan, baina HITZA jasotako lehen 50 argazkiak argitaratuko ditu.
- Argazki guztiak webgunean izango dituzue ikusgai.
- Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra bidali dezake.

**ORRUTEGI AUKERA ZABALA:**  
 GUTZETAKO 7, SUETATZIK GAZTEKO 10AK ARTE  
 BESTAKO ETA EGUSAL HIRIKO IRAKASLE TITULODUNAK  
 MAILA GUTZETAK (MERC) A1, A2, B1, B2, C1, C2  
 HIZKUNTZA EZBERRIDUNAK: INGHELESA, FRANTZESA, ALEMANA...  
 2009/2010 Hasturte berrin IRAILAREN 16an HASIKO DA  
 UDARAN TOLOSALDEKO AKADEMIA HARTUKO ZAITUZTEGU!

IRONTZEA: 100m. Olinpiko Eskola, 15. Inbentarioa, Olinpiko - 48100 - 943 31 91 93 -  
 943 31 37 40 - FAX: 943 31 37 40 - BILBO: 943 27 20 43 - ERRIOSA: 943 27 20 43 -  
 MARRAZENA: 943 27 20 43 - FAX: 943 27 20 43 - 48100 1271 - BILBO: 943 27 20 43 -  
 943 27 20 43 - FAX: 943 27 20 43 - LANBIDE: Pabilo Mendiak 11 - 48100 - 943 27 20 43 -  
 943 27 20 43 - FAX: 943 27 20 43 - BILBO: 943 27 20 43 - FAX: 943 27 20 43 - BILBO: 943 27 20 43 -

**ERZMENDI ARMATEGIA**  
**BIROLDENEA**

Kirio guztiak konpainietako lantegio  
 Aukera handia eskopelo eta korbuetan

Berriz 19 • Bilboko  
 ONDO PASA JAIEGAN!  
 Tel.: 943692623 • Fax: 943693044

**ondo pasa!**  
 Erriobeoa 3  
 Billabona  
 Tel.: 943 69 40 01

**Vikep**  
 943 69 40 01  
 Erriobeoa, 19 • Villabona



Iraki Gomezek irabazi zuen hirugarren edizioa, argazki honetan.



Laugarren aldian, erretratu eder honek eraman zuen saria, Ura Iturraldearena.



Nerea Lopezek Fjordotan ateratako argazkia izan zen garale 6. edizioan.



Irako Irartek ere lortu zuen lehen saria HITZA Argazki Lehiaketaren bosgarren edizioan.



Zazpigarrengan Bon Azpilikuaren basamortuaren paisaia izan zen ederrena irakurleen artean.



Maria Jesus Olanok Mozarbeliko emakume bat erakutsi zigun; berak irabazi zuen 8. edizioan, 2008ko udan.



Aurtengo Aste Santuan Jon Azpilikuaren paisaia honok eraman zuen lehen postua; noiz izango da hamargarrena?

# Herri krosa eta Euskal Jaia festen bigarren eguna alaitzeko

**Villabona** » Ramontxo Otaegik eta Izaskun Zubeldiak irabazi zituzten XXIX. Santio Krosek sari nagusiak.

## ERREDAKZIOA

Atsedeen eguna izango dute bihar-koa Villabonan. Santio Jaiak ostiralean hasi zituzten eta atzoko Santio egunaren ondoren, atsedena hartzeko probestuko dute gaur-koa. Izan ere, krisia bazter guztietara zabandu da eta Jai Batzordeak jai egunetako bat kentzea erabaki du aurtengoan, aurreztu ahal izateko. Etzi, dena den, jaiak aurrera jarraituko du ostirala, hilak 31, San Inazio egunera arte.

## Santio eguna

Atzokoan Santio eguna ospatu zuten eta diana-kalejirarekin hasi zuten eguna. Ondoren, sokamuturra izan zuten eta baita Zumbeltz elkarteak antolatu ohi duen XXIX. Santio Kros Herrikoia ere.

Elkarteen inguruan haur eta heldu mordoak ikusi ahal ziren pixkana pixkana berotzen. 180 bat korrikalari aritu ziren krolean, iazko kopuru antzekoa, hain zuzen.

Benjaminak izan ziren ateratzen lehenak, 11:00etan, eta ondoren atera ziren alebinak, infantilak, kadeteak eta juniorak. Proba nagusiaren eta beteroenen txanda orduerdi beranduago iritsi zen eta hauek 7,5 km egin behar izan zituzten.

## Irabazleak

Proba nagusiko irabazleak Gazteluko Ramontxo Otaegi eta Izaskun Zubeldia billabonatarra izan ziren. Beteranoen, hau da 35 urtetik gorakoen mailan, aldiz, emakumezkoetan Sara Puga izan zen lehena eta gizonezkoetan, aldiz, Eneko Garin.

Arratsaldean berriz, Euskal Jaia zabandu zen kaleetan barna. Zantantzarek iragarri zuten jaiak eta ondoren soka dantza egin zuten Oinkari dantza taldekoek Erreboteko plazan. Jende asko gerturatu



Zantantzarek eman zioten atzo hasiera Euskal Jaia, soka dantza egin zuten ondoren, Oinkariokoe. R. CALVO

zen dantza ikustera, behar bada, ondoren eskaini zuten sagardo eta pintxo dastaketak ere lagunduta.

## Kantua eta dantza nagusi eztarriak busti ostean

Herria Kantuz-ekin abesten ere aritu ziren eta beranduxeago dantza garaia ere iritsi zen. Landa aita-semeen erromeria izan zen lehenik eta gauean Laja eta Mikel ere aritu ziren.

Hauek bukatuta Astiasaran aniek alaitu zuten gaua eta bukatzeko Imuntzo eta Belokik. Afaria ere izan zuten, bildotsa burruntzian jan zutelarik eta afaltzen zuten bitartean Isk&bila txarangaren musika izan zuten lagun.



Ramontxo Otaegik irabazi zuen XXIX. Santio Kros Herrikoia. R. CALVO

## » EGITARUA

### Etzi, asteartea, hilak 28

- **11:30.** Haur jaialdia Bearzana pilotalekuan: *Musika tresnen fabrika.*
- **12:00.** Onddo Batukada herrian zehar.
- **14:00.** Bazkaria Berdura plazan, Onddo Gazte Asanbladak antolatuta.
- **17:00.** Orkestra Nazional taldearekin poteo-kalejira. Ondoren, afari-merienda plazan.
- **18:00.** Joko-Garbi partidak. Kadeteak (Villabona-Oiartzun) eta Iparaldeko pilotariak plazan, Behar-Zana elkartearen eskutik.
- **18:00.** Txan magoaren emanaldia Gurea zineman.
- **19:00.** Erraldoi eta buruhandien irteera plazatik, Villabonako Loatzoko Musika Eskolako trikitalariekin.
- **19:30.** Txekor jatea eta sagardo

dastaketa Txermingo ikastolaren azpian, Zumbeltz elkartearen eskutik.

- **21:00.** Kontzertua Impecables taldearen eskutik herriko plazan.
- **22:30.** *Nosotras* antzezlanaren Gurea zineman Hutsunea Betez taldearen eskutik.
- **00:00.** Dantzaldia plazan Joselu Anaiak taldearekin.

### Hilak 29, asteazkena

- **11:00.** Biltoki jubilatutaldearen eta Santiago egoitzako aitona-amonen eskulanean erakusketa Berdura plazan.
- **11:30.** Haur jaialdia: Apar Festa Arroan.
- **12:00.** Meza Nagusia parrokan.
- **14:00.** Jubilatuentzako bazkaria Txermingo ikastolaren azpian.

- **15:30.** Gaxtet Dj Txermingo ikastolaren azpian.
- **16:00.** Mus txapelketa herrikoia berdura plazan.
- **17:00.** Erraldoi et aburuhandien irteera plazatik, Villabonako Loatzoko Musika Eskolako dultzaineroekin.
- **18:00.** Haurrentzako Euskarakea Arroan.
- **18:00.** Palaz binakako herriko txapelketaren finala Bearzana pilotalekuan, Behar-Zana elkartearen eskutik.
- **19:30.** Abiba disko festa plazan.
- **22:00.** Oinkariren dantza emanaldia Arroan.
- **00:00.** Abiba disko festa plazan.

### Hilak 30, osteguna

- **13:00.** Erraldoi eta buruhandien irteera herriko plazatik, Villabona-

- ko Loatzoko Musika Eskolako trikitalariekin alaituta.
- **14:30.** Koadrilen arteko bazkaria izango da Etxeondon. Ondoren kalejira Incansables txarangarekin.
- **20:00.** Dantzaldia plazan Bide Batez taldearekin (21:30ak arte).
- **22:30.** Bertsolariak Arroan Zumbeltz elkartearen eskutik: Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze. Gai-jartzailea: Jon Zaldua.
- **00:00.** Zezensuzkoa plazan.
- **00:00.** Dantzaldia plazan Bide Batez taldearekin.

### Hilak 31, ostirala (San Inazio eguna)

- **08:00.** Diana-kalejira Loatzoko Musika Eskolako dultzaineroekin.
- **09:00.** Sokamuturra Olaederra kiroldegiaren ondoan, Loatzoko Musika Eskolako dultzaineroek alaituta.
- **10:15.** Haurrentzako sokamuturra Olaederra kiroldegiaren ondoan, Loatzoko Musika Eskolako dultzaineroek alaituta.
- **11:30.** Haur jolas parkea Txistu-

- larien plazan (bi puzgarri, zezen mekanikoa, ludoteka, txu-txu trenna eta jumping).
- **11:30.** Errebote plazan: Hazparne-Villabona.
- **16:00.** Txirrindulari lasterketa Irintzi elkartearen eskutik: Eroski parean irteera eta helmuga.
- **17:30.** Haur jolas parkea Txistularien plazan bi puzgarri, zezen mekanikoa, ludoteka, txu-txu trenna eta jumping).
- **18:00.** Herri kirolean lehiaketa plazan: Amasa-Villabona/Asteasu.
- **19:00.** Rock maratonia Gudari plazan: Skastyk, Disorders, Zura eta Funtastic Planet. Barra, animazioa eta hainbat sorpresa! Ondoren, Onddo Batukadaren kalejira plazara.
- **20:00.** Gurea zineman elkarte-lada isila: *Dispersioari stop! Eskubide zibil eta politikoen jabe, etxera!* Ilemapean.
- **00:00.** Erroskilaren errausketa plazan. Ondoren, kontzertuak plazan Sixty Sexers eta Esne Beltza taldeak.

## BRONTXILLO Harategia • Arraindegia

943 69 68 23  
Santio, 4  
Villabona

Santioak  
ondo pasa!

Janari Denda  
*Pepi*  
Jai zoriontsuak pasa!  
Etxeko Barazki eta Fruituak  
Berria, 56  
BILLABONA  
Tel. 943 69 16 38

Nahikideki  
Tel.: 943 69 64 84  
Faxa: 943 69 33 59  
Larrea auzoa, 8  
20150 BILLABONA  
Santioak  
ondo pasa!

ILLAPAINDEGIA - ESTETIKA  
Errota 1 behe esk.  
VILLABONA • Tel.: 943 696 292



## Atekabeltz Gaztetxea 4 urtez bizirik eta zirikatzen

**Leitza** » Frontenis Txapelketa Xabier Loitegi eta Luis Abruza irabazi zuten plazako frontoian jokotutako finalean.

### ASIER IMAZ

Giro ederrari gazte koadrila politak lagundu zion atzokoan Leitza. Hauek Atekabeltz Gaztetxearen IV. urteurrena ospatu zuten, eguerditik gauera bitarte.

### Txupinazoa eta brindisa

Ospakizun jaia txupinazoarekin jarri zuten martxan 12:00etan. «Lau urte, lau suziri». Ondoren 30 gazte inguru Gaztetxearen atarian bildu ziren, txanpainarekin brindisa egiteko.

Txanpain botilak hustu ondoren, «nork esaten zuen txanpain

ez zitzaiola gustatzen?» esanaz plazara abiatu ziren kalejiran.

Arratsaldeari hasiera ongi emateko herri bazkaria egin zuten Atekabeltz Gaztetxean, bertan 70 lagun elkartu ziren, Iruñetik etorritako euskaldun berriak eta guzti. Bazkalostean pestak argazki emaldiarekin eta elektrotzarangarekin jarraitu zuen.

Gaztetxearen IV. urteurrenaren jaia *Garagardo Gura*-ren musikarekin amaitu zen.

### Frontenis Txapelketaren finala

Gaztetxearen urteurrenean Frontenis Txapelketaren finala jokatu zuten plazako frontoian. Alde batetik Antton Abruza eta Juan Mari saikatu zirenazken partidara, bestalde Xabier Loitegi eta Luis Abruza. Azken bikoteak irabazi zuen txapelketa, 22-15eko emaitzarekin.



Brindisa Atekabeltz Gaztetxearen atarian egin ostean, plazara joan ziren frontenis partida ikustera gazteak. A. IMAZ



«Lau urte, lau suziri» jaurtiki zituzten pestaren hasieran. A. IMAZ



## Andoain Igorreren aurka pilotan

**AMEZKETA** » Joxean Tolosa Pilota Txapelketaren partidak jokatu ziren atzo Amezketako Larrunarri pilotalekuan. Jaialdian Andoaingo eta Igorreko pilotariak aritu ziren lehen zatian. Bi herrietako pilotariez

gain, hauen lagunak eta gurasoak ere bertan aurkitzen ziren ikuskizunaz gozatzen eta pilotalekuari itxura polita eman zioten. Atzo jokotutako partidak oraindik kanporaketa fasekoak ziren. ASIER IMAZ



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kirola

■ **Zizurkil.** Zizurkil-Villabona txirrindulari proba neskentzat. Antolatzailea: Irrintzi eta Urkamendi elkarteak eta Zizurkil eta Villabona-ko udalak.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Herriko kirol elkarteek urteroko diru laguntzak eskatzeko epea zabalik dago hilaren bukaera bitarte. Informazioa, udaltxean, kirol batzordean.

■ **Tolosa.** Hilaren 31rako Encantats-Pegueira mendirteera antolatatu du Oargi elkarteak. Izen-ema-

tea, 688 698642 telefono zenbakian.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Karlos Irazuren *Kolpez Kolpe* erakusketa Aranburun.  
■ **Tolosa.** Pelex artistaren *Hotsez Hots* erakusketa Aranburun.

### Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan gaur: 17:00etan, *Ice age 3*, eta 19:30ean, *Vacaciones de ferragosto*. Bihar (ikuslearen eguna) 20:30ean, *Vacaciones de ferragosto*.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

■ **Tolosa.** Etxebeite, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

#### Bihar

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esan eta iritzien erantzunik.



## Rovira Ordiziako Klasikoko buru

**ALEGIA** ● Jaume Rovira kataluniarrak irabazi zuen atzo Ordiziako 86. Klasikoa txirrindularitza proba. Txirrindulariak gure eskualdean barna ere ibili ziren, Ikaztegietatik, Alegiara joan ziren, handik Amezketeta, Abal-

tzisketa eta Larraitzera eta buelta hartu zuten ondoren. Rovirak Joaquim Rodriguez aberkideari zentimetro gutxiatik kendu zion garaipena. Hirugarrena Pablo Urtausun izan zen, Euskaltel Euskadikoar. R.CALVO

## A Agurrak



### Zorionak!

**Izei (Anoeta).** Bihar urtetxo bat. Jarrai alai alai izaten. Gurasoak eta etxeoak.



### Urte askoan!

**Zorionak Iñigo.** Nahiz eta pixka bat aurreratu. Amets asko dituzu buruan. Guztiak lortzeko gai izan zaitezela opa dizugu zurekin gaudenok. Etxekoan partetik. Eongo gabxik.



### Zorionak!

San Inazio eguna ondo ospatu, nahiz eta gurekin ezin batu, indarrak hartu eta oihukatu: Euskal Herria askatu!